

## BESTELAKO XEDAPENAK

### KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

## 2560

*AGINDUA, 2022ko maiatzaren 30ekoa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena. Honen bidez, erabakitzen da «iDarte» Euskal Autonomia Erkidegoko Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolako liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean integratzea.*

2021eko azaroaren 4an, «iDarte» Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskola ikastetxe publikoak egindako eskaera ikusi da. Eskaera horren arabera, formalki eskatzen da liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sartzeko.

«iDearte» Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskola ikastetxe publikoa da.

Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legeak 6. artikuluan ezartzen duenari jarraituz, kulturaren alorreko eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari dagokio Euskadiko liburutegi-sistemak ematen dituen liburutegi-zerbitzuen plangintza garatzea. Eskumen horrek barnean hartzen ditu Autonomia Erkidegoaren eskumeneko titulartasun publikoko liburutegi guztiak, bai eta titulartasun pribatukoak, foru-aldundienak eta estatuarenak ere, baldin eta borondatez sartzeko badira Euskadiko Liburutegi Sistemaren edo Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean.

11/2007 Legearen 7. artikuluan araberako, Unibertsitateko eta ikastetxeetako liburutegiak Euskadiko Liburutegi Sistemaren parte dira.

Arau horrek 13.3 artikuluan ezartzen du ikastetxe publikoetako liburutegiak Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sartu ahal izango direla.

Lege horren 13.4 artikuluan ezartzen duenez, Euskadiko Irakurketa Sare Publikoaren helburu nagusia da herritarrek beren kultura- eta informazio-erregistroetara sarbidea izatea, bai eta erabilera publiko orokorreko liburutegietako zerbitzuetan dauden kanpoko informazio- eta kultura-edukietara ahalik eta sarbide zabalena izatea ere.

Hori guztia dela eta, egiaztatu dugu aipatutako liburutegiak Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen 14. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sartzeko. Horrenbestez, hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agindua ematea «iDarte» Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskolako Liburutegia Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean sar dadin, oinarri hartuta Euskadiko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen 13., 14. eta 19. artikuluetan ezarritakoa.

Euskal Autonomia Erkidegoko Liburutegiei buruzko urriaren 26ko 11/2007 Legearen 14. artikuluan aurreikusitako zerbitzua emateko baldintzei eustera behartuta dago «iDarte» Arte eta Goi Mailako Diseinu Eskola ikastetxe publikoa, eta, bestela, emandako integrazio-baimena baliogabetuko da.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Errekurtsuak.

Agindu honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikulua), hilabeteko epean, agindua Euskal

2022ko ekainaren 9a, osteguna

Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, lehenago aipatutako data beretik aurrera (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. artikulua).

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– Ondorioak.

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzaren 30a.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,  
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.